

KANALAK

Salmenta. Elkartutako kanala bidez egingo da. Amazonekin elkartuko gara bezero gehiago eduki ahal izateko, Amazon mundu osoan ezaguna denez eta denentzako funda baliagarria izan daitekeenez aukera egokiena da. Marjen gutxiago irabazten dugun arren Amazon bezalako enpresa handiei esker errazagoa izango da bezero askotara iristea.

Bezeroekiko komunikazioa ez da zuzena izango da, Amazon bezalako denda handi bati esker salduko direlako. Amazonek teknologiarekin zerikusia duten produktu asko saltzen ditu, oso ezaguna da, eta jende askoren ahotara irits daiteke.

Publizitateari dagokionez, gure fundaren publizitatea egiteko, gazteek zein helduek sare sozialak geroz eta gehiago erabiltzen dituztenez, bertatik egingo dugu publizitatea, adibidez, Twitter, Instagram, Facebooken bidez.